



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2016/02/12

## **Batzar Nagusiek eskaerea egin dabe Barakaldo-EHU bizkaibusa Zorrotzatik igaro daiten**

Bilbon, 2016ko zezeilaren 12an.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio batzordeak aho batez onartu dau Barakaldo eta EHU arteko ibilpidea egiten dauen A2326 lineak Bilboko Zorrotza auzoko ikasleak hartu daizala, Leioako unibersidadeko campusera joan aurretik. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek batera aurkeztu daben zuzenketa-eskeak eskaerea egiten deutso Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Sailari, “Fray Juan kalean” linea horren geraleku bat prestau daiten.

Jeltzaleek eta sozialistek aurkeztu daben ekimenak EH Bildu taldearen arauz besteko proposamena zuzendu dau. Proposamen horrek, Bilboko auzo horretako “kultur eta biztanle alkarteen” aspaldiko errebindikazinoa jasoten dau, Balmaseda eta unibersidadea lotzen dituan linea Zorrotzatik igaro daiten. EH Bilduko Zigor Isuskizaren berbetan, auzo horretan bizi diran ikasleek “gaiztasunak ditue” campusera heltzeko, garraio aldaketea egin behar dabelako. Horrek kalte ekonomikoa dakar, “ordaindu beharrekoa bikoiztu egiten jakelako”. Halanda be, begi onez ikusi dabe azkenean adostu dan alternatibea.

Alternatiba guztiak aztertu ostean, Aldundiak ikusi dau “askoz hobea” dala Barakaldoko linea izatea zerbitzu hori eskiniko dauena. Vicente Reyesek zuzentzen dauen sailak “oso aurreratuta” dauka ibilpide aldaketa hori, Joaquín Colmenero batzordekide sozialistak aurreratu dauenez. Ganera, linea horrek sei bidaia egiten ditu egunero EHUra, eta Balmasedako lineak lau baino ez ditu egiten.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben zuzenketa-eskea “baliabideak hobetzera” eta erabiltzaileen “beharretara egokitzera” dator. “Kaltegarria” izango litzateke Balmasedako autobusa Zorrotzan urtetera behartzea, bere ibilpide “luzean” “11 geraleku” ditualako, adierazo dau Celia Gómez jeltzaleak. Ganera, Barakaldoko lineak “zerbitzu gehiago” ditu egunero, –“joaneko 6 eta itzulerako beste 6”– eta ibilpidea “laburragoa” da.

### **EZ DA ONARTU TRENBIDEAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEARI BURUZKO INFORMAZINO AZTERLANA**

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) eskatuta, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko diputatuak Batzar Nagusietan egin dauen agerraldiak, batzarretako taldeek eta Foru Aldundiak Gobernu Zentralak aurkeztu dauen



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidearen Informazino Azterlanari buruz dituen jarrerak finkatzeko balio izan dau.

Aldundiak tren arloan eskumenik ez dauela zehaztu ostean, Vicente Reyesek eskaerea egin dau Seranteseko tunela zabaldu ez daiten, Sustapen Ministerioak aurkeztu dauen trazauaren eragina jasaten daben udalerrriak “ez kaltetuteko egin beharreko lanak egiten ez diran bitartean”. Beste ezer baino lehen, Meatzaritza Inguruneko, Ezkerraldeko eta Bilboko “pertsonegan eta urigintza eta ingurumen arloetako garapenean eragin kaltegarririk izango ez dauen soluzinoa” eskatu dau.

Reyesek, udalerriek esaten dabenari eta Bilboko portuak behar dauenari jagokenez “kontuan izan behar diran puntuak” aitatu ditu: “merkantziei trenez urteera emoteko soluzinoa”. Urtuellan dagozan “aire zabaleko 600 metroak, trenbide pasagune bigaz”, edo lineak Trapagako Zaballa auzotik egiten dauen ibilpidea, eta Barakaldoko “bidezubiak” edo trenbide soluzinoa Olabeagan sartzea gogoratu ditu.

Batzarretako taldeek kritikau egin dabe funtzioetan dagoan Mariano Rajoyren egungo Gobernuak aurkeztu dauen proposamena. Podemos Bizkaia taldeko Nuria Atienzak esan dau proiektuak “ez dauela ingurumen eraginari buruzko azterlanik sartzen eta ez dituala beteten trenbide pasaguneen legea eta zaratari buruzko legea”, eta, ganera, “ez dauela kentzen une honetan dagoan botila-lepoa, merkantzien trafikoa trenbide bakarretik eroaten dauelako”, Renferen Aldirietako lineako bidaiarien trafikoagaz batera.

Joaquín Colmeneroren eretxiz PP taldeak, Trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidearen aurreko proiektu baten inguruan egoan “adostasuna apurtu dau”, eta kritikau egin ditu alegazinoak aurkezteko dagozan “30 egun eskasak”. “Arin eta zarata handirik sortu barik” egin gura izan dabe, “hau da, gauekotasunez eta maltzurkeriaz”, esan dau batzordekide sozialistak. Ildo horretan, Celia Gómez EAJ-PNVko batzordekideak azpimarratu dauenez, “garrantzitsuena merkantziak Portutik ahalik eta kostu eta eragin txikienagaz ataratea da”.

Gobernu Zentralak aurkeztu dauen proposamenaren “eragin izugarriak” egiaztatu ostean, EH Bilduko Zigor Isuskizak eskaerea egin dau proiektua baztertu eta “parametro europarrakaz kostuan/irabazietan oinarritutako azterlana” egin daiten, eta Gobernu zentralak egiten ez badau, Eusko Jaurlaritza izan daiten hori egiten dauena. Aurkeztutako alegazinoen artean “soluzino puntualak” ikusi ditu. Bere eretxiz, alegazino horreen artean “ikuspegi orokorra” falta da, “makroazpiegitura” hori beharrezkoa dan ala ez ikusteko. Azpiegiturak helburu bi ditu: Seranteseko tunelari – “gure Castellóko aireportua”– erabilerea emotea, eta “etorkizunean eregi daiteken Santander-Bilbo Abiadura Handiko lineagaz” loturea ezartea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

12/02/2016

### **Las Juntas Generales piden que el "bizkaibus" Barakaldo-UPV pase por Zorrotza**

La comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado por unanimidad una propuesta para que la línea A2326 que hace el recorrido entre Barakaldo y la UPV, pase a recoger estudiantes por el barrio bilbaíno de Zorrotza antes de dirigirse al campus universitario de Leioa. La enmienda conjunta de PNV y PSE-EE insta al Departamento foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio a que habilite una parada de esta línea “en la calle Fray Juan” .

La iniciativa de jeltzales y socialistas viene a corregir una proposición no de norma de EH Bildu que recogía una antigua reivindicación de "asociaciones culturales y vecinales" del barrio bilbaíno para que la línea que conecta Balmaseda con la universidad atravesara Zorrotza. Según Zigor Isuskiza, de EH Bildu, los alumnos y alumnas residentes en este barrio “tienen dificultades” para llegar al campus debido a que se ven obligados a hacer un trasbordo con el consiguiente perjuicio económico, ya que “se duplicaba lo que tenían que pagar”. Sin embargo, han visto con buenos ojos la alternativa finalmente acordada.

Después de estudiar todas las alternativas, la Diputación ha llegado a la conclusión de que es “mucho mejor” que sea la línea de Barakaldo la que preste este servicio. El departamento dirigido por Vicente Reyes tiene “muy adelantado” este cambio de recorrido, según ha anunciado el juntero socialista Joaquín Colmenero, en una línea que realiza media docena de recorridos diarios a la UPV, frente a los cuatro de la línea de Balmaseda.

La enmienda de PNV y PSE-EE viene a “optimizar los recursos” y "ajustarse a las necesidades" de los usuarios. Hubiera sido un "perjuicio" obligar al autobús de Balmaseda a realizar una salida en Zorrotza cuando en su “largo” recorrido cuenta con “11 paradas”, ha apuntado la jeltzale Celia Gómez. Además, la línea de Barakaldo cuenta con “más servicios” diarios –“6 de ida y 6 de vuelta”- y el recorrido es “más corto”.

### **RECHAZO AL ESTUDIO INFORMATIVO DE LA VARIANTE SUR FERROVIARIA**

Por otro lado, la comparecencia en Juntas Generales del diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, solicitada por el grupo Popular Vizcaíno (PP), ha servido para fijar las posturas de los grupos junteros y de la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Diputación respecto al estudio informativo de la Variante Sur Ferroviaria presentado por el Gobierno central.

Tras puntualizar que la Diputación no tiene competencias en materia ferroviaria, Vicente Reyes ha pedido que no se abra el túnel del Serantes “mientras no se hagan las obras necesarias para no perjudicar” a los municipios afectados por el trazado diseñado por el Ministerio de Fomento. Ha apoyado una variante ferroviaria pero dando primero “solución” a las reclamaciones de los municipios “sin afecciones a las personas, al desarrollo urbanístico y al medio ambiente” de la Zona Minera, Margen Izquierda y Bilbao.

Reyes se ha referido a los “puntos que hay que tener en cuenta” al hilo de lo que dicen los municipios y a lo que el mismo Puerto de Bilbao necesita: “una solución para dar salida por tren a las mercancías”. Ha recordado los “600 metros a cielo abierto, con dos pasos a nivel”, existentes en Ortuella, o el recorrido de la línea por el barrio Zaballa de Trapagaran, así como los “viaductos” en Barakaldo, o la entrada de la solución ferroviaria en Olabeaga.

Los grupos junteros han lamentado la propuesta del actual Gobierno en funciones de Mariano Rajoy. Nuria Atienza, de Podemos Bizkaia, ha sostenido que el proyecto “no incorpora un estudio de impacto ambiental e incumple la ley de pasos a nivel y la ley del ruido”, además de “no eliminar el cuello de botella ya existente al llevar el tráfico de mercancías por vía única”, en cohabitación con el tráfico de viajeros de la línea de Cercanías Renfe.

Joaquín Colmenero cree que el PP “ha roto el consenso” en torno a un proyecto anterior de la Variante Sur Ferroviaria, y ha criticado los “escasos 30 días” de plazo para presentar alegaciones. Han querido hacerlo “rápido y de tapadito, o sea, con nocturnidad y alevosía”, ha dicho el juntero socialista. En esta línea, la juntera del PNV Celia Gómez ha sostenido que lo importante es “sacar las mercancías del puerto con el menor costo posible y el menor impacto”.

Después de constatar los “tremendos impactos” del planteamiento del Gobierno central, Zigor Isuskiza, de EH Bildu, ha pedido que se retire el proyecto y se realice un “estudio basado en coste/beneficio con parámetros europeos” que si no lo hace el Gobierno central, sea el Gobierno vasco el que lo ejecute. Ha observado entre las alegaciones presentadas “soluciones puntuales”. Echa de menos entre las mismas una “perspectiva general” para ver si es necesaria esta “macroinfraestructura” que tiene como doble objetivo dar uso al túnel del Serantes –“nuestro aeropuerto de Castellón”- y permitir enlazar una “futura línea de Alta Velocidad Santander-Bilbao”.